



Lezoko Unibertsitateko Udala

Elkar
zainduz
Lezo

2026PE070001

ZINEGOTZI DELEGATUAREN D26/0416. DEKRETUA

EKONOMIA TEKNIKARIAREN LAN-POLTSA ERATZEA

2023ko maiatzaren 12an, Lezoko alkateak D23/0574. Dekretuaren bidez, Lezoko Udalaren 2023ko Lan Eskaintza Publikoa onartu zuen (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala - 2023ko maiatzaren 23a).

Tokiko Gobernu Batzordeak (2023-06-27ko D23/0826 dekretuan alkateak emandako delegazioen baitan) 2025eko urtarrilaren 28an egin zuen bilkuran, Administrazio Bereziko Eskalako, Administrazio Bereziko Azpieskala Teknikoko ekonomia teknikari plaza bat (A1 azpitaldea) lehiaketa-oposaketa bidez betetzeko deialdia eta oinarri arautzaileak onartu zituen. Iragarkiak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2025eko otsailaren 13an.

2025eko apirilaren 9an, zinegotzi delegatuaren D25/0432 Dekretuaren bidez, Epaimahai Kalifikatzailea izendatu zen.

2025eko abenduaren 1ean, Epaimahai Kalifikatzaileak plaza eskuratzeko baloratuak izan ziren hautagaien behin betiko emaitzak onartu, eta horren arabera, hautagaiaren proposamena egin zuen deialdiaren xede zen plaza karrerako funtzionario gisa betetzeko.

Aipatutako oinarrien 16. puntuan jasoa dago, hautaketa prozesuak lan poltsa bat sortuko duela, udalean bertan antzeko eginkizunak betetzeko aldi baterako beharrak betetzeko.

Lan-poltsa hau era guztietako ordezkapenatarako eta lanpostuak aldi baterako betetzeko erabili ahal izango da, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 10. artikuluan aurreikusitako moduan.

Era berean, Interesdunen baimenarekin, lan-poltsa horiek beste toki-erakunde batzuei eman ahal izango zaizkie, baldin eta aldi baterako enplegu-beharrak betetzeko hala eskatzen badute.

Lan-poltsa, plaza lortu ez duten, baina oposizio fasea gainditu duten hautagaiak osatuko dute oposizio fasean lortutako puntuazioaren hurrenkeraren arabera, beti ere lanpostuari esleitutako 4. Hizkuntza-eskakizuna badute. Hala ere, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko 19/2024 Dekretuaren 37.4 artikuluan xedatutakoa kontutan hartu behar da, zeinaren arabera, 4. hizkuntza-eskakizuna esleitura duten lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuetan, hautagaiak ez badute hizkuntza eskakizun hori egiaztatzen, deialdi horren ondorioetarako C1 hizkuntza eskakizuna (3. HE) aplikatuko da.

Ondorioz, lan-poltsa bi multzotan egituratuko da: lehenengoan, 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen duten hautagaiak sartuko dira, oposizio fasean lortutako puntuazioaren hurrenkeraren arabera; bigarrenean berriz, oposizio fasea gainditu eta 3. hizkuntza-eskakizuna duten hautagaiak sartuko dira, hauek ere dagokien puntuazio-hurrenkeraren arabera.



Lezoko Unibertsitateko Udala

Elkar
zainduz
Lezo

2026PE070001

Horiek horrela, eta kontuan hartuta beharrezkoa dela ordezkapenak egiteko eta zerbitzu-beharrak betetzeko lan-poltsa bat eratzea, hona Zinegotzi delegatuaren (2023-06-27ko D23/0827 dekretuan alkateak emandako delegazioen baitan) ERABAKIA:

BAT: Ekonomia teknikarien lan-poltsa eratzea udal honek Administrazio Bereziko Eskalako Administrazio Bereziko Azpieskala Teknikoko ekonomia teknikari plaza bat lehiaketa-oposaketa bidez betetzeko burutu duen prozesuaren baitan (2024PE090008 espedientea).

BI: Lan-poltsa, plaza lortu ez duten, baina oposizio-aldia gainditu duten hautagaiek osatuko dute oposizio fasean lortutako puntuazioaren hurrenkeraren arabera (ERANSKINA).

HIRU: Lan-poltsa hau era guztietako ordezkapenetarako eta lanpostuak aldi baterako betetzeko erabili ahal izango da, EPOELTBren 10. artikuluan aurreikusitako moduan.

LAU: Erabaki hau udaleko web-gunean argitaratzea.

Erabakiaren aurkako errekurtsioak:

a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeke errekurtsioa aurkez dezake 39/2015 Legearen arabera.

- Horretarako, hilabeteko epea dauka, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.
- Errekurtsioa aurkeztekotan erabakia hartu duen organoarengana jo behar da.

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake zuzen-zuzenean.

- Horretarako, bi hilabeteko epea dauka, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

- Errekurtsioa aurkeztekotan, EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzitarako Donostiako epaitegira jo behar da.

Sinatzailea Zinegotzi delegatua, Eneritz Arruti Osanbela

Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara:
<https://munigex.net/r/0/53/AAAA5QL06.sRkD>



Lezoko Unibertsitateko Udala

Elkar
zainduz
Lezo

2026PE070001

ERANSKINA

ZK	NAN	HE
1	***53750*	4
2	***46190*	4
3	***82230*	4
4	***49993*	4
ZK	NAN	HE
1	***65875*	3